

# FUNTZIONARIO BERRIAK

# ERE GERTU

2003ko  
urria

ARABA,  
BIZKAIA,  
GIPUZKOA

## AURKIBIDEA:

1. orr.  
SARRERA
2. orr.  
ZURE EGOERA  
BERRIA
3. orr.  
LANPOSTU  
FINKOA
4. orr.  
LANPOSTU  
FINKOA  
GALTZEA
5. orr.  
BAREMO  
EZBERDINAK
7. orr.  
"B" KIDEGOTIK  
"A" KIDEGORA
7. orr.  
HIZKUNTZA  
ESKAKIZUNEN  
TRATAERA
8. orr.  
LAN  
BALDINTZAK  
ETA  
ESKUBIDEAK

## SARRERA

Aspaldian oposaketak izan gabe, azkenean burutu egin dira 2003ko udan zehar eta horren ondorioz urte hauetan ordezeko gisa ibili zareten zuetako asko funtzionario bihurtu zarete.

Egoera berri honek hainbat zalantzak sortzen ditu (praktika aldia, lekualdatzeak ...). Zalantzak horiek guztiak eta egoera berri honen ezaugarri nagusiak argitzen saiatuko gara Gida honetan.

Baina harian sartu aurretik eskaera batzuk luzatu nahi dizkizugu, LABek bultzatzen duen sindikal ildoaren bidetik:

- Ez ezazu ahantz orain gutxira arte izan duzun ordezeko egoera
- Ez ezazu errepika batzuetan entzun egiten den "marroiak ordezekoak har ditzala" eskema
- Borroka itzazu zure ikastetxean langile guztiontzako baldintzarik egokienak, denon mesederako izango baita
- LABen denontzat lan-baldintzak berdinen aldeko aldarrikapena defenda ezazu zure egoera berrian
- ...

**O  
n  
a  
r  
r  
a  
n  
o  
k  
n  
i  
g  
a  
d  
a**

## ZURE EGOERA BERRIA

### ✓ PRAKTIKA ALDIA

Lanpostu Eskaintza Publikoaren 3. fasea da (1.ngoa Lehiaketa, 2.a Oposizioa, 3.a Praktikak) eta aurreko biak gainditu dutenek (praktiketako funtzionarioek) egin behar dute, karrerako funtzionarioak izendatuak izateko.

Praktika aldi honek **6 hilabeteko iraupena** izango du eta Batzorde Kalifikatzaile batek ebaluatuko du “Gai” edo “Ez gai” kalifikazioarekin. Fase hau Administrazio eta Zerbitzuen Saiburuordearen Ebazpen batek arautuko du. Ebazpen horren arabera praktika aldiaren ebaluazioa 3 hilabeteko iraupenarekin egin ahal izango da **ezinbesteko kausak** izanez gero (amatasun lizentziak, gaixotasun larriak ...). Beste kasuetan (borondatezko eszedentziak ...) ikasturtean ez bada 6 hilabeteko jarduna osatzen ezin izango da praktika aldia ebaluatu eta hurrengo ikasturtean osatu beharko da falta den aldia, karrerako funtzionario izendapena atzeratuko delarik.

Oposaketetako deialdian esaten denez, **Kidego desberdineko 2 espezialitatetan** izendatutako praktiketako funtzionarioek **bietan egin beharko dituzte praktikak**, ikasturte jarraietan. Espezialitate biak Kidego berdinekoak izanez gero, batean egindako praktikaaldiak balioko du bietan izendatua izan ahal izateko.

### ✓ BEHIN-BEHINEKO LANPOSTUA

Esleipenetan (oposaketetako notaren arabera) praktikak egiteko hartutako lanpostua **behin-behinekoa** da. Lanpostu honetan **finkatuak** izango gara, behin-betiko lanpostuaren zain, eskubide gehiago duen behin-betiko funtzionario batek desplazatzen ez gaituen bitartean.

Hala ere, **autodesplazamendurako eskubidea** izango dugu ikastetxe zein herrialdetik aldatzeko. Aukera hau **ekaina aldera** egiten den deialdi baten bitartez erabili ahal izango da. Ikasturte honetako esleipenetan aukeratu edo behartutako herrialdeak ez du inolako eraginik autodesplazamendurako edo Lekualdatze Lehiaketaren aukeretarako.

### ✓ BEHIN-BETIKO LANPOSTUA

Esan bezala, **behin-betiko lanpostua Lekualdatze Lehiaketa bitartez** lortuko dugu. Lehiaketa hau bi motakoa izan daiteke: estatu mailakoa (2 urtean behin deitutakoa) eta autonomia mailakoa (Hezkuntza Sailaren eskuetan geratzen da deialdia estatala ez dagoen urteetan).

**03-04 ikasturtean 2. Hezkuntza, Irakasle Tekniko eta Hizkuntza Eskoletako irakasleentzat eta Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat Lekualdatze autonomikoaren deialdiak** egingo dira. Baina, administrazioaren arabera (erabakia ez badu aldatzen) **soilik 2. Hezkuntza, Irakasle Tekniko eta Hizkuntza Eskoletako Kidegoko praktiketako funtzionarioek parte hartu beharko dute**. Haur eta Lehen Hezkuntzakoek, aldiz, 04-05 ikasturtean izango den deialdi estatalari itxaron beharko dute Lekualdatzean parte hartzeko.



**Praktika egoeratik parte hartzen den** Lekualdatze prozesuari buruz ondoko atalak hartu behar dira kontuan:

- Parte hartu behar da derrigorrez behin-betiko lanpostua lortu arte
- Aukeratzan den erreferentzi herrialdeko ikastetxe guztiak adieraztea komenigarria da. Izan ere, Administrazioak ofizioz atxiki gaitzake herrialdean guk aukeratu gabeko ikastetxeren bati.
- 2. zein 1. Hizkuntza Eskakizuneko lanpostuak aukera ditzakegu, 2. HE izanez gero. Lekualdatzean emango diguten lanpostuaren perfila izango da gure lanpostuko perfila.
- Behin betiko lanpostuen esleipenerako oposaketetako nota hartuko da kontuan.

## **LANPOSTU FINKOIA**

### ✓ **NOIZ LORTU**

Lanpostu finkoa lortzeko epea, espezialitate eta hizkuntza eskakizunaren arabera da. Izan ere, lanpostu libre asko dauden espezialitateetan (teknologia, lanbide heziketa, psikologia-pedagogia, Hizkuntza Eskoletakoak...) lehenengo lekualdatze honetan behin-betiko lanpostua lor daitekeela suposa daiteke. Beste kasu batzuetan, epea luzeagoa izan daiteke eta hainbat urte gera gaitzake behin-behineko lanpostuan, honek urtero lekualdatze-lehiaketan parte hartzen behartuko gaituelarik.

### ✓ **LANPOSTUEN BANAKETA IKASTETXEAN**

2. Hezkuntza ikastetxetan espezialitate bateko irakasgai eta taldeak banatzeko prozedura Ikasturte hasiera antolatzeko Erabakiak arautzen du. Horren arabera, Zuzendaritza-taldeak finkatuko ditu irizpideak ikastetxearen urteko planean, oreka bilatzen saiatuko delarik, beti ere irakaskuntzaren kalitatea helburu izanik. Irizpiderik ez balego, ikasketaburuak jarraiaiko txandean sistema erabiliko du, aipatu Erabakiak adierazten dituen baldintzetan.

### ✓ **BORONDATEZKO LEKU ALDATZEAK**

Leku aldatzean lortutako behin-betiko lanpostuan bi urte egon behar da gutxienez beste lanpostura leku aldaketa eskatu ahal izateko. Leku aldaketa hori, borondatezkoa izango denez, ezaugarri eta baremo desberdinak izango ditu.

Lehenengo eta behin, nahi ditugun lanpostuak soilik eskatuko ditugu. Leku aldatze lehiaketaren behin-behineko erabakia aterako denean (maiatza edo ekaina aldera) 5 eguneko epea izango dugu parte hartzeari uko egiteko. Kontuan hartu uko egitean ez dugula errefusatzan lanpostu zehatz bat, leku aldaketan eskatutako lanpostu guztiak baizik.

Baremoan ere berezitasunak daude eta lehentasunezko hautuak egon daitezke, norberaren egoeraren arabera. Berezitasun hauek iazko Deialdietan begira ditzakezu:

**HAUR ETA 1. HEZKUNTZA: 2002ko urriaren 9ko Agindua (EHAA 200 zk., 02-10-21)**  
**BIGARREN HEZKUNTZA: 2002ko urriaren 14ko Agindua (EHAA 205 zk., 02-10-28)**

## LANPOSTU FINKOA GALTZEA

Lekualdatze lehiaketaren bitartez lortu lanpostuan finkatua egongo gara beste bat eskatu eta lortzen ez dugun bitartean edo gure lanpostua desagertu arte. Ikastetxe batean dauden lanpostu finkoak urtero argitaratzen den Lanpostu Zerrendetan (LPZ-RPT) zehazten dira, plantila organikoa edo presupuestarioa osatzen delarik. Plantila hau aurrekontuetan onartzen dena da eta ez du bat egiten funtzionamenduko plantilarekin.

Lanpostu Zerrendak ikasturte hasieran argitaratzen dira eta horrek adieraziko ditu behin-betiko lanpostuen egoera eta lekualdatze lehiaketan eskainiko diren lanpostu hutsak. LPZ-etan lanpostu bat desagertzen bada (matrikula aldaketa...) bertan finkatu irakaslea desplazatua edo ezabatua (suprimitua) geratuko da. Lanpostu Zerrendek eragindako aldaketak **Irakasleria Birbanatzeko prozesuan** (berratzikipena) gauzatzen dira. Prozesu hau ondoko Dekretuetan arautzen da:

**HAUR ETA 1. HEZKUNTZA: 81/1996 Dekretua, 1996ko apirilaren 16koa (EHAA 96-05-03)**

**BIGARREN HEZKUNTZA: 86/2002 Dekretua, 2002ko apirilaren 16koa (EHAA 02-04-19)**

Egoera desberdinak daude:

- **ORDURIK GABEKOAK.** Kasu honetan irakaslea ordurik gabe geratu da ikastetxean, baina Lanpostu Zerrendan ez da desagertu lanpostua. Egoera hau behin-betiko bada (ordu jaitiera izan delako) hurrengo LPZan islatuko da eta hortik aurrera izango ditu efektuak. Bitartean lanpostu finkoa ikastetxean gordeko da. Egoera honetan dagoen irakasleak uztaila edo iraileko esleipenetan parte hartu beharko du lehendabiziko txandan lanpostu bat lortzeko, non antzinasuna eta beste eskubideak gordeko zaizkion.
- **EZABATUAK eta DESPLAZATUAK** (2. Hezkuntzan soilik). Egoera hau Lanpostu Zerrendetan lanpostua desagertu eta Berratzikipen prozesuan egokia den beste lanpostua ez bada lortzen gertatuko da. Noren lanpostua desagertzen den zehazteko **baremo propio bat erabiltzen da, zeinak ikastetxean behin-betiko bezala egindako urteak eta karrerako funtzionario bezala egindakoak hartzen baititu kontuan.** Desplazatuaren egoera 2. Hezkuntzan soilik gertatzen da. Egoera honetan, irakasleak ikastetxean gordetzen du lanpostua eta funtzionamenduko plantilan orduak baleude bertan jarraitu behar du. Horrela ez bada eta ezabatuen kasuan parte hartu behar du uztaila edo iraileko esleipenetako lehendabiziko txandan lanpostu bat lortzeko, non antzinasuna eta beste eskubideak gordeko zaizkion.

Berratzikipen prozesuaren osteko egoera berriak Lekualdatze Lehiaketan parte hartzean eragina izan dezake. Izan ere, ezabatua edo desplazatua dagoenak lekualdatzean parte har dezake lehentasunezko aukerak (ikastetxea, herria eta eskualdea) erabiliz eta ezabatu edo desplazatu aurreko lanpostuaren puntuazioa (motxila) berreskuratzen du. Desberdintasun garrantzitsua dago bi egoeren artean, ezabatuek derrigorrez hartu behar dute parte nahi duten lanpostuetarako. Desplazatuak ez dute derrigorrez parte hartu behar, baina parte hartuz gero ezabatuen eskubide guztiekin egin dezakete.

# EGOERA EZBERDINETAKO BAREMOAK

## ✓ OPOSAKETETAKO NOTA

Oposaketetan ateratako nota, praktikak egiteko lanpostuen esleipenetan hartzen da kontuan. Era berean, **praktika egoeratik parte hartzen den Lekualdatzean behin betiko lanpostuak esleitzeko, praktika aldiko funtzionario izendatzen dituen Aginduan zein hurrenkeratan dauden (notaren arabera) kontutan hartuta egingo da.**

Karrerako funtzionario egoeran behin-betiko lanpostua lortzeko Lekualdatze prozesuetan, berriz, propio den baremoa erabiltzen da. Baremoan berdinketa izanez gero, baremoko arlo bakoitzeko (edo azpiarloa, beharrezko bada) puntuaziorik handiena lehenetsiko da, lehenengotik azkeneraino jarraituz. Berdinketa jarraitzekotan, oposizio urtea hartuko da kontuan, eta **azken irizpide bezala, urte berekoen artean, oposizioan ateratako puntuazioa.** Gauza bera gertatzen da irakasleak birbanatzeko prozesuan, zeinean berdinketak apurtzeko azken irizpide legez hartzen baita kontuan oposizioan ateratako puntuazioa.

## ✓ DERRIGORREZKO LEKUALDAKETA (karrerako funtzionarioentzat)

Karrerako funtzionarioentzat derrigorrezko lekualdaketa (behin-betiko lanpostua lortzeko) erabiltzen den baremoa lehen aipatu Deialdien eranskinetan agertzen da:

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA
<p>a) a.6- Sartu berri eta behin-behineko egoeratik parte hartzen duenak a) atala aplikatu beharrean, c) atala aplikatzeko eskubidea izango du, zerbitzu urte guztiak behin-behinekotzat hartuko direlarik.</p> <p>c) Behin betiko destinoa lortu ez duten karrerako funtzionarioek aldi baterako egoeran egindako denboraldia: <u>puntu bat urteko</u> (puntuazioa gehigarria zailtasun bereziko ikastetxe edo lanpostuetan egindako zerbitzuengatik)</p> <p>d) Jarduneko lan-urteak karrerako funtzionario gisa maisu-maistren kidegoan: <u>puntu bat urteko</u></p> <p>e) Prestakuntza eta hobekuntza, hezkuntza administrazio publikoek antolatutako edo baliokideak (3,5 puntu gehienez):</p> <p>e.1- Emandakoak: <u>0,10 puntu egiaztatuko 10 orduko</u> (puntu bat gehienez)</p> <p>e.2- Gainditutakoak: <u>0,10 puntu egiaztatuko 10 orduko</u> (2 puntu gehienez)</p> <p>e.3- Maisu-maistren kidegoan sartzekoak bestelako espezialitate bakoitzeko (850/1993 Errege Dekretuak adierazitako bidez): <u>0,50 puntu</u></p>	<p>1.2 AINTZINATASUNA</p> <p>1.2.1 Lanpostuaren kidegoan Karrerako funtzionario gisa benetako zerbitzuetako urte bakoitzeko: <u>2 puntu</u></p> <p>1.2.2 Kidego bereko edo gorakoetan Karrerako funtzionario gisa benetako zerbitzuetako urte bakoitzeko: <u>1,5 puntu</u></p> <p>1.2.3 Kidego beheragoetan Karrerako funtzionario gisa benetako zerbitzuetako urte bakoitzeko: <u>0,75 puntu</u></p> <p>1.2.5 Destinoaren zain karrerako funtzionario gisako urte bakoitzeko: <u>puntu bat</u></p> <p>1.3 MEREZIMENDU AKADEMIKOAK</p> <p>1.3.1 Kidegoan sartzeko titulazioan Doktoretza gradua: <u>5 puntu</u>; aipatu Doktoretzan aparteko sariak: <u>puntu 1</u>; aurkeztu titulazioan aparteko sariak: <u>0,5 puntu</u>; beste lizentziaturako Doktoretza: <u>3 puntu</u>; beste lizentziaturako Doktoretzan saria: <u>0,5 puntu</u>; beste lizentziaturan saria: <u>0,25 puntu</u></p> <p>1.3.2 Unibertsitateko bigarren titulazioak: lehen ziklokoak, <u>3 puntu</u>; bigarren ziklokoak, <u>3 puntu</u>; erregimen bereziko irakaskuntzen titulazioak: maila ertaineko musika eta dantza, <u>puntu bat</u>; hizkuntza eskolako oinarriko maila, <u>puntu bat</u>; goi mailakoa, <u>puntu bat</u></p>

f) Kidegoan sartzeko aurkeztutako tituluez besteko titulu akademikoengatik:

- f.1- Doktorea: 2,50 puntu
- f.2- Bigarren ziklokoak: 1,50 puntu
- f.3- Lehen ziklokoak: 1,50 puntu

g) Beste merezimenduak (15 p. gehienez):

- g.1- Argitalpenak eta lanaren balorazioa (10 puntu gehienez):
  - g.1.1- Ikastetxe publikoetan karrerako funtzionario gisa bete Zuzendari lana (1,5 p. urteko),
  - g.1.2- Idazkari edo Ikasketa-burua (puntu bat),
  - g.1.3- Zikloko koordinatzaile edo ikerketa zerbitzuetarako langile izatea (0,5 puntu);
  - g.1.4- Hezkuntza administrazioko lanpostua (1,5)
  - g.1.5- Irakaskuntzaren alde edo curriculumaren zeharkako gaiei edo eskola antolaketari buruzko argitalpen didaktikoak (puntu 1 gehienez)
  - g.1.6- Zientzia mailako eta berrikuntza teknikoaren argitalpenengatik (puntu 1 gehienez)
  - g.1.7- Araubide bereziko ikaskuntzako titulazioak (maila ertaineko musika eta dantza, hizkuntza eskola oinarrizko zikloa edo goi-mailakoa, 0,5 p. bakoitzeko)
- g.2- Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez daukaten lanpostuetan (1. HE atzeratua) euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da: 2,5 puntu 2. HE edo 1. HE izategatik.

1.4 TREBAKUNTZA ETA HOBEKUNTZA (gehienez 5 puntu)

- 1.4.1 Alde zientifiko eta didaktikoei buruzko hobekuntza-ikastaroak edo eskola-antolamenduarekin nahiz hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin zerikusia duten gaitutako ikastaroetako 10 orduko 0,1 puntu (4 puntu gehienez)
- 1.4.2 Hezkuntza alorreko trebakuntza eta hobekuntza jarduerengatik, ikastaroak ematea barne: puntu bat arte
- 1.4.3 Kidego bereko titularra den beste espezialitate bakoitzeko (850/1993 Errege Dekretuak adierazi prozedura bidez): puntu 1

2.1 ARGITALPENAK (5 puntura arte)

- 2.1.1 Didaktikako argitalpenak edo curriculumaren aspektu orokor edo zeharkakoei edo eskolako antolakuntzari dagozkionak: 2,5 puntura arte
- 2.1.2 Zientzi izaerako argitalpenak, proiektuak eta berrikuntza teknikoak: 2,5 puntura arte

2.2 BETETAKO LANAK (10 puntura arte)

- Karrerako funtzionario gisa mailako ikastetxe publikoetan zuzendari egondako urte bakoitzeko, 3 puntu; ikastetxeetako irakasle-eta baliabide-zuzendari lanetan, 3 puntu; zuzendariorde, idazkari edo ikasketa buru bezala urte bakoitzeko, 2 puntu; zuzendaritzako beste karguak, puntu bat; departamendu buru edo etengabeko prestakuntzako aholkulari edo hezkuntza eta psikopedagogiako orientabide-talde bateko zuzendari moduko lana: 0,5 puntu; hezkuntza administrazioko lanpostua: 1,5 puntu

2.3 Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez daukaten lanpostuetan (1. HE atzeratua) euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da: 2,5 puntu 2. HE edo 1. HE izategatik.

✓ **BORONDATEZKO LEKUALDAKETA**

Borondatezko lekualdaketa (behin-betiko lanpostua aldatzeko) erabiltzen den baremoa lehen aipatu Deialdien eranskinetan agertzen da. Ondokoak dira:

**HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA**

**BIGARREN HEZKUNTZA**

a) Parte hartzen deneko ikastetxean behin betiko destinoarekin karrerako funtzionario gisa etengabeko iraunaldia:

a.1- Lehenengo, 2. eta 3. urteak, puntu bat urteko; 4.a, 2 puntu; 5.a, 3 puntu; 6. 7. 8. 9. 10.ak, 4 puntu; 11. eta hurrengoak, 2 puntu

a.4- Behin betiko lanpostua ezabatu zaionari atal honetako zerbitzuak kontatuko zaizkio behin betiko izaeraz egindakoa, eta geroztik edozein ikastetxetan behin behineko izaeraz

1.1- KATEDRADUNA IZATEA: izateagatik, 6 puntu; katedradun legez urte bakoitzeko, 0,5 puntu

1.2- AINTZINATASUNA

1.2.1 Lanpostuaren kidegoan Karrerako funtzionario gisa benetako zerbitzuetako urte bakoitzeko: 2 puntu

1.2.2 Kidego bereko edo gorakoetan Karrerako funtzionario gisa benetako zerbitzuetako urte bakoitzeko: 1,5 puntu



egindakoak. Ez bada beste behin betiko destinorik bete, eskubidea izango da c) atalari dagokion puntuazioa gehitzeko.

a.5- Lanpostua ezabatu ondoren behin betiko zerbitzuak ematen ari direnek eskubidea izango dute ezabatutako lanpostuaren zerbitzuak gehitzeko edota behin behinekoak izandakoak.

a.6- Sartu berri eta behin-behineko egoeratik parte hartzen duenak a) atala aplikatu beharrean, c) atala aplikatzeko eskubidea izango du, zerbitzu urte guztiak behin-behinekotzat hartuko direlarik.

b) Izaera bereziko Ikastetxe edo lanpostuan behin betiko destinoarekin egindako denboraldiak puntuazio gehigarria izango du (0,5 puntu 1., 2. eta 3. urteak; puntu bat 4.a; 1,5 puntu 5.a; 2 puntu 6, 7,8,9 eta 10.a; puntu bat 11.a eta hurrengoak)

c) ataletik aurrerako beste guztiak lehen aipatutakoak dira.

1.2.3 Kidego beheragoetan Karrerako funtzionario gisa benetako zerbitzuetako urte bakoitzeko: 0,75 puntu

1.2.4 Ikastetxean behi-betiko lanpostuan izandako denboragatik: 1. 2. eta 3. urteak, 2 puntu urteko; 3.a, 3 puntu; 4. eta 5.a, 4 puntu; 6.a, 5 puntu; 7. eta 8.a, 4 puntu; 9.a, 3 puntu; 10. eta hurrengoak, 2 puntu

1.2.5 Destinoaren zain dauden karrerako funtzionarioentzat eta lehenengoz borondatez parte hartuz aukera egiten dutenentzat, 1.2.4 atalari dagokionaren ordez atal hau aukera dezakete: puntu bat egindako urte bakoitzeko

1.2.6 Izaera bereziko Ikastetxe edo lanpostuan behin betiko destinoarekin egindako denboraldiak puntuazio gehigarria izango du: puntu bat 1. eta 2. urteak; 1,5 puntu 3.a; 2 puntu 4. 5. 6. 7. eta 8.a; 1,5 puntu 9.a; puntu bat 10. eta hurrengoak

1. 3 MEREZIMENDU AKADEMIKOAK eta baremoko hurrengo atalak lehen aipatutakoak dira.

## **B KIDEGOTIK A KIDEGORA**

Deialdi honetara aurkeztu eta plaza lortu duten maisu-maistren zein irakasle teknikoaren prestazio sozialen egoera erabat aldatzen da, hau da, orain arte MUFACEpean zeundeten funtzionarioak (93 baino lehenagokoak) Gizarte Segurantzapean egongo zarete. Aldaketa hau abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29.3 artikuluan oinarritzen da, EAEko Bigarren Hezkuntzako kidegora sartu zaretelako eta Estatuko Administrazio Orokorreko borondatezko eszedentzia egoeran egoteagatik.

Zer dakar MUFACERen prestazio barik geratzeak? Besteak beste, atal honetako punturik garrantzitsuenak erretiroarekin zerikusia dauka, hau da, MUFACEko mutualistak 60 urte eta 28 urteko kotizazioarekin aukera dauka borondatezko jubilazioa eskatzeko (LOGSE IX. aldi baterako erabakia, LO 1/90, urriaren 3koa), dituen eskubide ekonomikoak galdu barik eta saritua izanez. Gizarte Segurantzak, aldiz, ez du saritzen aurrejubilazioa eta eskubide guztiekin jubilazioa 65 urte eta 35 urteko kotizazioarekin izan behar da.

## **HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN TRATAERA**

Benetan deigarria egiten zaigu hizkuntza eskakizunari buruz egiten den trataera. Jadanik jasan dugun bezala, Lakuan egindako praktiketarako esleipenetan 2. HE genuen irakasleok behartuta egon ginen euskarazko lanpostuak hartzen, horrelakorik zegoen bitartean. Horren arabera, derrigorrez hartu izan behar dugu gure bizilekutik urrun ziren lanpostuak bertan erdarazko lanpostuak egonda ere, azken hauek puntuazio gutxiago zuten 1. HE-eko irakasleek hartzeko aukera izan dutela. Bitxikeria da merito gehiago duen pertsonak aukera gutxiago izatea. Honek, gainera, beste ondorio bat izan du: HE2-ko lanpostuak derrigorrez hartu behar izan direnez eskakizun honetako lanpostu gutxiago geratu dira esleipenetan irakasle euskaldunek hartzeko.

Leku aldaketetan, aldiz, ez da egoera hau gertatzen. Lehen esan bezala, aukera dugu hizkuntza eskakizuna duten zein ez duten lanpostuak, azken hauetarako baremoan puntuazio gehigarria izango dugularik. Kontuan hartu, eskakizun gabeko lanpostua lortuz gero, horrela definiturik izango dugula ikastetxeko lanpostuen zerrendan, LPZ-etan gerta daitezkeen aldaketek eragin izan ahal dutelarik.

Beste kalte bat gerta daiteke lanpostua ezabatzen denean, hau 2. HE-koa bada. Lanpostua ezabatzean beste behin-behineko bat lortzeko esleipen prozesuan parte hartu behar dugu. Kasu honetan egonez gero, eskualdean (administrazioarako bilgunean) edozein lanpostu hartzeko lehentasuna izango dugu. Baina eskualdean lanposturik egon ezean herrialde fasera pasatuko gara, eta eremu horretan derrigorrez hartu beharko dugu euskarazko lanpostua, horrelakorik dagoen bitartean. Honek, batez ere, eragina izaten du Lanbide Heziketako lanpostuetan, eskualde bakoitzean LHko Institutu gutxi egoten baita.

Adibide bat erabiliz, Gipuzkoan, Oretako eskualdean Don Bosko LHko institutu bakarra dago. Bertan lanpostua ezabatuz gero, herrialde mailara jo beharko dugu eta, egonez gero, euskarazkoa hartu. Gerta daitekeena zera da: Gipuzkoa osoan euskarazko lanpostuak Aretxabaleta-Arrasaten soilik egotea. Kasu honetan, nahiz eta Donostian lanpostu librerik egon, ezin izango dugu hartu erdarazkoa delako eta Aretxabaletara joan beharko dugu. Hemen ere, merito gehiago duen pertsona kaltetua suertatzen da.

Hau guztia salatu du LABek behin eta berriz eta gaia Planifikazio Batzordeko mahai ganean jarri du auzia behin betiko konpontzeko.

## **ESKUBIDEAK ETA LAN BALDINTZAK**

Irakasleen lan-baldintzak eta eskubideak araututa daude Lan Hitzarmenaren bitartez, **228/2002 Dekretua, urriaren lekoa (EHAA 204 zk., 02-10-25)**, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duena.

Lan Hitzarmenaren 6. Tituluak lizentziak eta baimenak arautzen ditu. Horren arabera, karrerako funtzionario izango garenetik aurrera bertan adierazten diren eskubide guztiak izango ditugu. Besteen artean: 37. artikulutik 57.rarte adierazten diren lizentziak eta baimenak guztiak, eszedentziak, destino-trukeak, nomina aurrerapenak, partzialki ordaindutako baimen urtea (urte sabbatikoak) ...

Gogoratu behar dugu hemen, LABek irakasle guztiontzat lan-baldintzen eta eskubideen berdintasunaren aldeko egiten duen aldarrikapena. Ildo horretan jarraituko dugu, horrek ere hezkuntza kalitatea bermatuko duen eragile bat baita.

### **IRAKUR ETA ZABALDU INFORMAZIO HAU ZALANTZAK IZANEZ GERO, DEITU EGOITZETARA**

**[www.labsindikatu.org](http://www.labsindikatu.org)**

**Araban**  
Bueno Montreal, 10 Behea  
01001 Gasteiz  
Telf.: 945 259 544  
Faxa.: 945 258 039  
[Irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org](mailto:Irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org)

**Bizkaian**  
Rekalde zumarkalea,62  
48010 Bilbo  
Telf.: 944 706 900  
Faxa.: 944 706 909  
[Irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org](mailto:Irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org)

**Gipuzkoan**  
San Bladi 1, behea  
20011 Donostia  
Telf.: 943 458 562  
Faxa.: 943 472 709  
[Irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org](mailto:Irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org)

**Nafarroan**  
M. Zelaieta,75 - 2A  
31014 Iruñea  
Telf.: 948 382 474  
Faxa.: 948 221 276  
[Irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org](mailto:Irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org)

**Iparraldean**  
13 Marengo Karrika  
64100 Baiona  
Telf.: 0559595020  
Faxa.: 0559595021  
[baiona@labsindikatu.org](mailto:baiona@labsindikatu.org)